

KUDEAKETA TXOSTENA 2017

Bazkide agurgarria:

GEROA osatzen duten guztien lanari esker, 2017. urtean aurreko ekitaldian hasitako bideetako asko finkatu dira. Batetik, araudira egokitzeko prozesua amaitu dugu, **Gobernu Oneko politikak garatuaz, arrisku-tipologiaren arabera Zorroak bereiztuaz eta Inbertsio-Printzipioen Aitorpena aldatuaz.**




2017an tokiko **Zuzeneko Inbertsioarekin** jarraitu dugu; izatez, zuzenean parte hartu dugu **6 enpresa berritan**, 1.100.000 €-tik gorako inbertsioarekin, eta ORZA bidez 10,5 milioitik gorako inbertsioa egin dugu. Era berean, **beste 3 mikrokreditu** eman ditugu. Inbertsio honi esker, enpresa onuradunek **beste 92 lanpostu** gehiago eratu dituzte. Urteko **errentagarritasuna**, bestalde, bikaina izan da, **% 9,95koa**, eta 1996tik **% 6,63** urteko batez **besteko** errentagarritasuna lortu da; hartara, aldi baterako errentek **% 1,50** handitu dute balioa eta biziartekoek **% 3,61**.

Bestalde, gure Jardun Onaren arrakastaren lekuko, pentsio-funtsen arloan Europako liderra den IPE aldizkari ospetsuak **“Espainiako enpresaniztuneko pentsio-funtsik onena”**ri saria eman zigun. Honez gain, eredutzat hartzen gaituzten zenbait forotan parte hartu dugu.



Alabaina, aintzatespen publikoen gaitetik, benetan harro gaude bazkideei zein enpresei egindako Gogobetetze-Inkestek eman dituzten emaitzekin. Adierazgarria da **langileen % 88** **ekarpenak egiten jarraitu nahi izatea** eta, krisialdi gogorra jasan dugun arren, **enpresen % 90** **ados egotea ekarpenekin edo ekarpenak gehitu nahi izatearekin**, langileekin duten gizarte-erantzukizunaren adierazgarri.

2017A ZENBAKITAN






ERRENTAGARRITASUNA ETA GASTUAK

GASTUAK	ERRENTAGARRITASUNA		
	1 URTE	10 URTE	1996tik
ADMINISTRAZIO GASTUAK	%0,12		
BITARTEKARITZA GASTUAK	%0,03		
HIRUGARREN BATZUEN KOMISIOAK	%0,28		
HIRUGARREN BATZUEN KOMISIOAK	%77,29		
ORDAINETAKO BATEZ BESTEKO ALDIA			
EGUN 1			
KPI	%1,20	%1,25	%2,08
GEROA	%9,95	%6,03	%6,63
Errenta Finko Mistoaren BATEZ BESTEKO (INVERCOREN datuak)	%1,21	%1,76	%3,26

ERRENTEN ERREBALORIZAZIOA

- GEROAKO ALDI BATERAKO ERRENTAK **%1,50**
- GEROAKO BIZIARTEKO ERRENTAK **%3,61**
- KPI **%1,20**
- PENSIO PUBLICOKA **%0,25**



Tel. 943 317 022
www.geroa.eu

